ORDAINSARI POTENTZIAL TXIKIAGOA. ARRISKU TXIKIAGOA.					ORDAINSARI POTENTZIAL HANDIAGOA. ARRISKU HANDIAGOA.	
1	2	**3**	4	5	6	7

Kutxabank Errenta Finko Mistoa 15 Pentsio Fondoaren arrisku-maila 3 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurretiazko iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

🕶 Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoen araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.
🕶 Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoen balioa pentsio-fondoaren aktiboen merkatuko balioaren araberakoak dira eta galera nabarmenak eragin ditzakete.
Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarrizko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta.
Kutxabankeko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioplanak

ERRENTA FINKO MISTOA 2026/UZTAILA/31

KUTXABANK FINKO MISTOA 15 PF

kutxabank Pensiones

PUBLIZITATEA

INBERTSIO POLITIKA

Ondarearen % 15, gehienez ere, fondoaren inbertsio-bokazioarekin bat etorrita inbertituko da, Errenta Aldakorrean; ondarearen gainerako zatia nagusiki inbertituko da ageriko edo eperako gordailuetan, eta errenta finko publiko edo pribatuan. Unean uneko egoeraren arabera, % 1 gainditu ahal izango da errenta aldakorreko maximoa, etenik gabeko hilabeteko epean, gehienez ere. Fondoak aktibo motekiko duen esposizioa lortzeko, inbertsio zuzenak egin ahal izango dira horietan, baita inbertsioak ere finantza-tresna eratorrietan. Pentsio-fondo honek ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen ditu (2019/2088 Erregelamenduaren (EB) 8. art.).

EZAUGARRI OROKORRAK

Ondarea:	394.946.562,25 €
Kudeatze-Komisioa:	%1,30
Gordailatze-Komisioa:	%0,20
Arrisku-profila:	3 1etik 7rako eskalan

2026/07/31ra Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa	3 hilekoa	Urtekoa	Urte 1	Urte 3	Urte 5
-%0,88	%1,04	%1,51	%2,53	%3,46	%0,17

*Urtebete baino epe laburragokoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2026	2025	2024	2023	2022	2021
%1,51	%2,21	%3,77	%6,07	-%11,28	%0,90

*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

BALIO LIKIDAGARRIAREN BILAKAERA



2026/07/31ra Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte	%3,01
Lurrunkortasun 3 urte	%2,97

HILEKO IRUZKINA

"Uztailean, merkatuen arreta energian, banku zentraletan eta teknologian kontzentratu da. Munduko ekonomiak aurrera egiten jarraitu du erresilientzia aipagarriarekin. Energiaren merkatuen egonkortzeari esker, ziurgabetasuna hein batean murriztu da, baina zalantzak gelditzen dira zikloaren sendotasunaren inguruan eta oraindik ere murriztaileak diren baldintza finantzarioek jardueran izango dituzten efektuen inguruan. Oraingoz, Amerikako ekonomiak indartsu jarraitzen du, eta hori da bere ezaugarri nagusia. Lan merkatuan, egonkortasuna eta adimen artifizialarekin lotutako inbertsioa dira nagusi, eta produktibitate itxaropenak bultzatzeaz gain, Amerikako ekonomiak epe luzera hazteko duen potentzialaren ikuspegia ere hobetzen ari da. Europan, egoera apur bat ezberdina da, aurrerapena motelagoa baita. 2. hiruhilekoko BPGaren gorakadak (+% 0,4) baieztatu egin du euroguneak urte hasierako ahultasuna saihestu duela. Energiaren prezioen beherakada albiste ona izan da eurogunean, baina oraindik ere ez dira erabat normaldu. Inflazioa, beraz, arreta gehien hartzen duen alderdietako bat da oraindik. Zenbait adierazlek azkenaldian nolabaiteko moderazioa agertu duten arren, banku zentralek planteamendu zuhurra mantendu zuten azken bileretan, eta lehentasuna eman zioten prezioen egonkortasunari, politika monetario murriztailea luzaroago mantentzeko aukera zabalik utzita. Interes tasen aurreikuspenekin eta ziurgabetasun geopolitikoarekin lotzen den hegakortasuna gorabehera, bilakaera positiboarekin jarraitzen duten enpresa mozkinen euskarria aurkitu dute merkatuek. Estatu Batuetan, sektore teknologikoaren inguruko zalantza puntualak (AA esparruko capex-aren jasangarritasuna, monetizazio erronkak eta Txinatik datorren lehia gero eta handiagoa) atzean gelditu dira, eta sektoreen arteko errotazio handiagoa hasi da; Europan, berriz, portaera askoz ere orekatuagoa ikusi dugu balorazio erakargarriei esker eta energia testuinguruaren egonkortzeari esker. Asian, bilakaera ezberdina izan dute merkatuek. Beherakadak bereziki nabarmenak izan dira kontzentrazio teknologiko handia duten indizeetan, hala nola Korean edo Taiwanen, hornidura kate teknologikoen pisua dela eta, eta baita Japoniako Nikkei indizean ere. Hong Kongo burtsa, aldiz, indarrez igo da % 13tik gorako hazkundearekin. Errenta finkoan, interes tasen aurreikuspenek baldintzatu dituzte mugimenduak. Zuhurtziari helduz, bai Erreserba Federalak eta baita Europako Banku Zentralak ere errentagarritasun gorakadak eragin dituzte zor publikoan. Aitzitik, kreditu korporatiboa indartsu mantendu da, enpresa balantze sendoei eta inbertsio eskari handiari esker. Bestalde, dibisen merkatuan, dolarra indartsu mantendu da dibisa nagusien aurrean, eta petrolioak, aldiz, hegakortasun handia erregistratu du. Hilabete hasierako zuzenketaren ondoren, aurrerapen berriak gertatu dira hilabete amaierako Ekialde Hurbileko tentsio geopolitikoen areagotzearen ondorioz, eta hori mugatzeko, LPEEren ekoizpena handitzeko eta Txinako erosketak murrizteko ahaleginak egiten ari dira."

Zorroaren banaketa



Errenta Aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



Oharra: hiru hilabete baino gutxiagoko epemuga duen errenta finkoa likideziaren barne dago.

Dokumentu honen helburua da informazioa ematea, eta ez da inola ere kontratu-dokumentu bat, gomendio bat, aholku pertsonalizatua, eskaintza edo eskaera. Ezin da hartu edozein inbertsio-erabakiren aurretik kontsultatu behar den legezko informazioaren ordezkotzat, eta legezko informazio hori izango da nagusi desadostasunik sortuz gero. Inbertsioak merkatuaren gorabeherei lotuta daude, baita baloreetan eta beste finantza-tresna batzuetan inbertitzeari dagozkion beste arrisku batzuei ere. Beraz, Pentsio Fondoaren eskurapen-balioak eta errentagarritasunek goranzko zein beheranzko aldaketak izan ditzakete, eta baliteke inbertitzaile batek ez berreskuratzea hasieran inbertitutako zenbatekoa. Pentsio Fondoaren informazio-dokumentu guztiak (hala nola Oinarrizko Datuen Agiria, Inbertsio Politikaren Printzipioen Adierazpena, aldizkako informazioa, inbertsioen xehetasunak, etab.) entitate merkaturatzaileen webgunean kontsulta daitezke.

ORDAINSARI POTENTZIAL TXIKIAGOA. ARRISKU TXIKIAGOA.						ORDAINSARI POTENTZIAL HANDIAGOA. ARRISKU HANDIAGOA.
1	2	**3**	4	5	6	7

Kutxabank Errenta Finko Mistoa 15 Pentsio Fondoaren arrisku-maila 3 da, 1etik 7rako eskalaren barruan. Aurreikuspen hori fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarrituta egin da. Horrez gain, aurreikusitakoaren arabera fondo bakoitzaren ondarea inbertituko den aktibo-moten bilakaera historikoan oinarritu da. Hala ere, arrisku-maila bakoitza inoiz alda daitekeenez, adierazlea neurri estatikoa da eta ez du aurretiazko iritzirik eskaintzen planen etorkizuneko arriskuari buruz.

👀 Prestazioa kobratu edo berreskuratu ahal izango da soilik pentsio-planen eta pentsio-fondoen araudian araututako likideziazko aparteko gertaeraren edo balizkoren bat gertatzen bada.
👀 Lekuz aldatzeko eskubideen, prestazioen eta likideziazko aparteko balizkoen balioa pentsio-fondoaren aktiboen merkatuko balioaren araberakoak dira eta galera nabarmenak eragin ditzakete.
Indarreko araudiarekin bat etorrita, Pentsio Plan bakoitzeko partaidearentzako Oinarrizko Datuen Agiri bana dago, horiek guztiak www.kutxabank.es webgunean argitaratuta.
Kutxabankeko Pentsio Planen eta horietako bakoitzari lotutako arrisku-indizearen kontsulta hurrengo webgunean egin daiteke: www.kutxabank.es/pentsioplanak

Kutxabank Pentsio Planen onurak:

- Aurrezteko finantza-tresna, **zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.**
- **Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko** malgutasun osoarekin.
- **Inbertitzeko politika desberdina duten Kutxabank Pentsio Plan desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera,** zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- **Konfiantza Kutxabanken.** Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- **Onurak Kutxabankeko beste produktu batzuetan** (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako pentsio plana denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitezke.**

GAINERA, KUTXABANK FINKO MISTOA 15 PLANAK HONAKO ONURA HAUEK IZANGO DITU:

KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

ARRISKUAREN KONTROLA. Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

EGUNEROKO JARRAIPENA

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).



Proba ezazu erretirorako gure simulagailua

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrizanetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

Hasi etorkizuna planifikatzen, Kutxabank Pentsio Planekin:
SIMULAGAILUA

Aukeratu zure etorkizuna.

PENTSIO**PLANAK**

PLANEN ERAKUNDE SUSTATZAILEA: **KUTXABANK SA.**
PENTSIO FONDOEN ERAKUNDE GORDAILUZAINA: **CECABANK SA.**
PENTSIO FONDOEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA:
KUTXABANK PENSIONES SAU.